

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **214/2020 Foru Agindua, uztailaren 6koa. Onespena ematea deialdia egin eta kreditua gordezteari, aparteko almazariak erosteko 2020rako laguntzetarako**

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 29ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 27ko 70/2012 Foru Dekretuz aldatua), aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarriak onetsi ziren.

Lehen aipatutako dekretuaren 9. artikulua dio urtero-urtero onetsiko dela laguntzetarako deialdi bat, eskaerak aurkezteko epea eta eskaerei buruzko ebazpena emateko kredituak zehaztuz.

Beharrezkotzat jotzen da aparteko almazariak erosteko laguntzen 2020rako deialdia onestea.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea aparteko almazariak erosteko 2020rako laguntzen deialdiari. Hona hemen xehetasunak:

– Eskaerak aurkezteko epea: hogeita hamar egun natural foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Kreditu erreserba: 3.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 40.1.02.43.00.770.00.01 “zaldi azienda hobetzeko laguntzak” partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.2338/000).

– Dirulaguntzen zenbatekoa: gehienez ere, 3.000,00 euro emango dira dirulaguntzetan deialdi honen barruan, eta dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Bigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 6a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**